

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera joan dezan, funtsezko baliabide batzuk izan behar ditugu. Hauek 4 talde desberdinetan banandu dezakeguz:

- **Aktibo fisikoak:** Hauek bulego bat, metrakrilatozko diplomak (hauek gurekin lan egiten dituzten establezimenduak izango dituzten zertifikatuak dira), bulegoko materialak eta abar izango dira.
 - Bulegoa --> Bulego zabala eta argitsua Areetan. Kanpoaldeko 5 bulego daude, leihate handiekin, eta barruko beste 4, guztiak oso egoera onean. Ateak eta bainugela berrituak. 3 bainugela oso ditu, funtzionamendu oneko berokuntzaz hornitutako bulegoak. Gure bulegoari hainbat atsedenleku eta sukalde bat gehituko ditugu. Gure lokalak erosotasun handiko hainbat idazmahai eta aulki izango ditu, langileen beharrei jarraituz. Era berean, bilera-gela bat eraikiko dugu beharrezkoa denerako.



[Alquiler de Oficina en Las Arenas Centro, Las Arenas, Getxo — idealista](#)

- Ziurtagiria
- Bulego materiala--> mahaiak, aulkiak, ordenagailua...
- **Aktibo ukiezinak:** Esan beharrik ez dago gure webgunea (*email* zein telefono zenbakia ere, noski) emen barruan kokatuko ditugula, baita gure aplikazioa ere, eta hau martxan jartzeko behar ditugun programa informatiko guztiak ere.
- **Giza baliabideak:** Gure langileak izango dira hauek, ez dira azpikontrataturik egongo. Gure enpresaren beharrak ikusita, gure langileak ezaugarri desberdinak izan beharko dituzte. Hauen artean teknologian adituak diren langileak, salmentarako gaitasuna dutenak, nutrizionistak edota elikaduraren arloan espezializatutako profesionalak (agian medikuak ere izan ahal ditugu, sukaldariak aipatutako errezetak eta klase edo kurtsuak emateko...), enpresa burua, lider bat, kontsultarako bideratutako langileak... eta abar izango ditugu (hasieran).

Gure enpresan berdintasun-planak kontuan izango ditugu. Familiak dituzten langileentzat (seme alabak edo pertsona bat zaindu behar dutenak) malgutasuna eskainiko diegu haien ordutegian, haien behar izanak kontuan izanik.

- **Finantz baliabideak:** Argi dago kapitala behar izango dugula gure proiektua aurrera eramateko, beraz kreditu bat eskatu behar izango dugu bakuan. Horrez gain, aurrerago azalduko dugunez, diru laguntzak ere eskatuko ditugu. Aipatu dezakegu hemen edozein larrialdietarako kapitala izango dugula gordeta, ezustekoak gertatzen direnean erabiltzeko.